

ezagutzen al duzu Donostia?

Berabera

Aldapatetik gora *Goi-kogaltzadan* barrena Aieten sartzen garelarik, auzo honetako Santakruz parrokia pasata gure eskuinera, hots, Lugaritz aldean, elkarri erantsitako etxe eskalonatuen auzo handi bat dago, gure azpikaldean ikusten dugularik. Lehen lur hauek denak baserri lurrak ziren eta bertan zeuden *Orta*, *Ortatxiki* eta bereziki *Berabera* baserria. Auzo berria eraiki zuen entrepesak; bere promozioetarako hobe izango zelakoan, izen berri bat asmatu zuen auzo honentzat: «Bidebieta dos», honela bertako izenak errotik deuseztuz. Dena dela, Udala honetaz arduratu zen eta inguru honetako pasealeku garrantzitsuenari *Berabera* baserriaren izena jarri zion. Honela auzoa, poliki,



Berabera baserri zaharra, gaur egoitza bihurtua.

poliki, bertako izena berreskuratzen ari da. Nondik dator izen polit eta berezi hau? Bada, oraindik ere bertan dagoen *Berabera* etxe ederretik. Egun etxe hau, ongi eraberritua, egoitza pribatu bat da. *Berabera* deitu izan dugu beti, baina hainbat zerrendetan -hala nola, Gipuzkoako 1863ko

«nomenklator»ean eta berdin Donostiako 1862ko erregistroan- «Beraguera» edo «Bera-guera» izenarekin azaltzen zaigu, geroztik *Berabera* bihurtu zaigularik. *Berabera* oso baserri handia zen; lur eremu handiak erabiltzen zituen. Hiru bizitzetan zatitua zegoen baina nagusi bakarra zuen.

Garai haietan etxeen jabeek baserriak ahal zuten bizitza gehienetan zatitzen zituzten, gainera, baserri-lurrak maizterren artean sakabanatuz. Honela egin zen *Beraberarekin*; maizter familia bat ongi bizi ordeztu, diru gabezia bizi izan ziren.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

zuri begira gaurde

zinemazaleak, irakasleak, jubilatuek, kirolariak...
KLASE GUZMETAKO EUSKALDUN BERRIAK DITUZU ZURE ZAM

EGUN ZAMER
MUNIZALAGUNA

Informazio
gehiagorako zatoz
BAGERA elkartera.

**Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea**

San Juan 14
Tfnoa.: 43 12 28